


Argitalpenak

Diskoteka

IKER BARANDIARAN

Probokazioa tradizioaren gainetik

Arrasateko hirukoteak ez du inor hotz uzten, probokatu egiten dute, eta hori da beraien lorpen handiena: horretarako, trikitia erabiltzen dute, Inesek kantatzeko era berezia dauka, sexuaren gaineko testu ausartak abesten dituzte, eta formazio bitxia da. Mauriziarren espiritu errebeldea aldarrikatuta eta punk jarrera gaurkotasuna, bestelako soinua lortzen saiatzen dira. Ordenagailua gailu punk eta askeena dela diote eta trikitiaren doinuekin ezkontzen aritzen dira Maixa, Gothan Project, Etzakit edota jazz latindarra sar daitezkeen lapiko sensual eta mingarriaren barruan. Are gehiago, gai horietatik kanpo Celestino Uriarte iraultzailearen omenezko kantua idazteko —*Amets gorrien tau-padak* liburuaren harira— tarte ere hartu dute, baita Hertzainak-en *Hil ezazu aita* egokitze ere.



Gose II
Gose

BAGA BIGA

Iraupena: 42'52"
10,95 euro

GOSE

«Trikitiak aspalditik beste buelta bat behar zuen»

Dagoeneko bi disko dituzue eta ez zarete ase. Zeren gose zarete?

Gauza askotaz: abestiak egiteaz, jotzeaz... Eta egunkarietan eskeletan ez daudenez gain beste asko hiltzeko gogo daukagu.

“Tradizioa ez dena gozamina da” askotan ahotan duzue.

Orain dela asko esan zuten Ruper Ordorikak Gasteizen kontzertu batean, eta arrazoiak dauka: arriskatzea, zerbait aldatzea beti da gozamina. Hori da aurrera egiteko modua, tradizioa apurtzea.

“Zuen borroka guztia, hildako guztiak, azkenean etsaien eskutik jateko”. Nolako esperientzia izan zen abesti hori idaztea?

Hori da pentsatzen dudana izebak Gerrako bizipenak kontatu ostean. Oraingoa demokrazia dela esaten digute eta guk sinistu. Iraganean borrokatu zuten guztiak zeharo lotsatuta egon behar dute gaur egungo gizartea ikusita.

Gose, Hey boy, Mantis atea...
Bueltan da euskal matriarkatua?

Neska batek *Hey boy* moduko kantua abesteak jendea zur

eta lur uzten du. Probokazio hori bilatu nahi genuen. Mutil batek hori abestuko balu, ez zen ezer gertatuko. Baina Inesek hori abesten du, trikitia eskegita eta euskaraz... Mauriziak ere antzekoak abesten zituen, oso errebeldea zen.

Gose talde feministatzat har dezakegu?

Ez. Berdintasunaren aldekoa. Feminismoa eta matxismoa, biak gorroto ditugu; helburua da parera egotea. Baina izugarritzko amorrua ematen digu gazteak halako abestiekin harritzeak.

“Ni naiz plazera eta mina”. Halakoa da Gose? Sentsuala, goxoa, xuxurlaria eta gordina, apurtzailea eta mingarria?

Gozamina eta mina oso antzekoak dira, ezta? Jokoa-ren parte dira. Gose gose da. Ez duzue Des-Kontrolak adina saltzen, ezta?

Ez! Guk saltzea baino, bat baino gehiago harrituta uztea lortu dugu, trikitiarekin halako gauzak egiten. Izan ere, trikitiaren booma gertatu zenean pop-arekin egin zuten, baina aspalditik trikitiak beste buelta bat behar zuen.

